



Behargin bat hil da Fumbarrin, lantegiko teilatua konpontzen zebilela handik behera jausita

Durango • Langilea azpikontraturiko enpresa batentzat zebilen lanean. LAB eta CCOO sindikatuek osaturiko enpresa komiteak lan heriotza salatu eta protesta egin zuten eguaztenean. • 5



Abadiñoko sokatiralariek uzta oparoa munduko txapelketan

Kirola • Urrezko domina birekin eta zilarrezko batekin itzuli dira Suedian jokatu den munduko txapelketatik. • 20




Alvaradoren 'Arketipoak' Arte eta Historia Museoan

Kultura • Jenni Alvarado artista durangarrak margolanekin eta eskulturekin osaturiko erakusketa ipini du Durangoko Arte eta Historia Museoan. Martxoaren 17ra arte egongo da ikusgai. • 18

Lemazain berria Berbaro elkartean



Durango • Lekuko aldaketa egon da Berbaro euskara elkarteko zuzendaritzan. Pello Zabarte Narbaiza zaldibartarrak azken bost urte eta erdian kudeatzaile karguan egondako Markel Sanchez Zelaia durangarraren lekua hartu du. • 2-3



'Mañaritik Atxetara', lasterketa gogorra bezain erakargarria

Kirola • Irailaren 21ean egingo den mendi lasterketa berriak 42 kilometro ditu, eta 3.800 metroko desnibel positiboa. Besteak beste, Untzillatx tontorretik igaroko da. • 21

IURRETAKO HEZKUNTZA eremua

Olaburu auzunea, IURRETA

--AURREMATRIKULAZIOA--
Otsailaren 7tik 23ra arte

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraioa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak lurretan.

MAIZTEGI
946 810 937

 OROBIOGOITIA
944 288 000



2-12 urte
MAIZTEGI
HH eta LH



12-18 urte
OROBIOGOITIA DBH eta
Batxilergoa



“Berbarok beti izan du proiektu berritzaileak sortzeko gaitasuna; aurrerantzean ere funtzio horri helduko diogu”

Berbaroko kudeaketan lekuko aldaketa egon da. Pello Zabarte Narbaizak hartu du Markel Sanchez Zelaiak azken bost urte pasatxotan beteriko kudeatzaile kargua. Eremu berrietara heltzen jarraitzeko bidean sakondu gura du Zabartek

EUSKARA • EKAITZ HERRERA

"Durangokoa den baina proiektuak Durangaldean ere badituen euskara elkarteak". Markel Sanchez kudeatzaile irten berriak halantxik definitzen du Berbaro. Pello Zabarte kudeatzaile etorri berriak bere egin du esan hori, eta etorkizunera begirako asmoa erantsi dio: "Seguru nago gauza berriak etorriko direna". Zabartek aurreratu duenez, euskara, kirola eta sare sozialak harilkatuko dituen proiektu berria kaleratuko dute laster.

Lekuko aldaketa eginda, zelan kargu berrian?

Pello Zabarte: Egia esan, oso ondo, gustura eta pozik. Hilabete pasatxo da kargua hartu nuenetik, eta tarte honetan lan berria ezagutzen ibili naiz. Lankideekin hartu-eman estutzen, eta Berbaroren funtzionamendua eta euskalgintzako beste hainbat kontu ikasten ibili naiz. Aurrerantzean ere ikasten jarraitu gura dut.

Erronka handia da Berbaroren gidaritza hartzea?

P.Z.: Bai, bada. Maila pertsonalari dagokionez, eremu berri bat da ni-

retzat. Gainera, Berbaro Durangoko elkarte da eta ni ez naiz durangarra. Horrek ere badu erronkatik. Bestalde, kontuan hartu behar da Berbaro oso ibilbide luzea duen elkarte delako. Komunitate sendoa du, langileak ditu eta proiektu esanguratsu ugari sortu du urte hauetan guztietan. Saltsa askotan sartuta egon da urte hauetan, eta halantxik dago gaur egun ere. Erronka potoloa da, baina baita polita ere.

Markel, zuk bost urte eta erdi egin dituzu Berbaroko kudeatzaile lanetan. Zelako urteak izan dira?

Markel Sanchez: Berbarok eginiko lanari dagokionez, balantzea positiboa da. Proiektu berriak ipini ditugu martxan, eta iruditzen zait lehen heltzen ez ginen eremu berrietara heltzea lortu dugula. Alde horretatik, pozik nago. Bestalde, proiektu batzuk egin barik geratu dira, hain zuzen ere, mundu guztiari legez, izurriak asko eragin zigun eta. Hau da, bide honek utziriko arantzen artean, badago gauzatu ezin izan dugun proiektu zehatz bat. Ahalegindu gara, baina ez du fruiturik eman. Bestalde,

maila pertsonalari dagokionez, oso pozik egon naiz, eta oso gustura lantaldeagaz. Asko ikasi dut.

Zeintzuk dira Berbarok zabalduko eremu berri horiek eta zein da arantza zehatz hori?

M.S.: Umeen aisialdiari begirako gaztelekuak kudeatzera pasatu gara. Lehen ez zegoen horrelakorik. Udalekuak eta Durangoko Azokako Haur Literatur Aretoa, esaterako, bagenituen. Baina ez zegoen gazteei begirako programarik, gaztelekurik. Helduen aisialdiari begira ere hainbat gauza egin dugu. Internet bidez egiteko ihes gelak, film laburren lehiaketa, Hirukoa lehiaketa... Esango nuke lehen jorratzen ez genituen eremu batzuk landu ditugula. Arantzen artean, honako hau daukat: Durangon euskarazko irrati libre moduko bat ez sortzea, podcastekin osaturiko proiektu bat. Proiektuari Berbarotik ekin gura genion, gero autonomia propioa izatera pasatzeko. Baina kontu bategatik edo besteagaitik, ez du aurrera egin.

Elkarri lekukoa ematerakoan, tarterik izan duzue elkarregaz egoteko?

P.Z.: Astebetean lan egin genuen elkarregaz. Eta, egia esan, oso eskertuta nago, Markelek asko lagundu dit eta. Horrek asko errazten ditu gauzak.

M.S.: Nik orain bost urte jaso nuen lekukoa, Maite Berriozabalaren eskutik. Berak ere gauza mordoak erakutsi zidan, lantaldea ere zuri laguntzeko dago. Bestalde, lekuko aldaketa egiterakoan, gauzak zelan dauden erakustetik harago, askoz ere interesgarriagoa da bakoitzak bere ekarpena egitea eta bere egiteko era ekartzea.

Pello, kudeatzaile bakoitzak bere norabidea eta estiloa izan ditzake. Zein da zure ikuspegia?

P.Z.: Berbarok oso proiektu indartsuak ditu, altxor bat direnak. Gazte arloko proiektuak, udalekuak, ume etorri berrientzako euskara ikastaroak, haur literatura, urteko azken bertso saioa... Horiek guzti horiek zaintzea izango da funtziorik inportanteetariko bat. Bestalde, Berbarok beti izan du proiektu berriak sortzeko gaitasuna. Funtzio hori ere

hor egongo da datozen hile zein urteetan.

Durangon eta eskualdean, zein gogoeta egiten duzue euskararen osasunari buruz?

P.Z.: Esan daiteke euskararen erabilerak azkenengo urteetan gora egin duela hemen. Soziolinguistika Klusterrak 2021ean kaleraturiko datuen arabera, euskararen kaleko erabilera %21,5ekoa

Netflix edo Play Station gailuen aurrean gatx da aisialdi alternatibak eskaintzea, baina sinetsita nago tokikotasunak bide hori zabalduko digula

da Durangaldean. Azkenengo urteetan goranzko joera egon da. 2011ko kopurua %16,5ean zegoen, 2016an %18an, eta 2021ean %21,5ean.

M.S.: Horixe da herririk gehienetarikoa joera, eta eskualdekoa ere bai. Baina joera soziolinguistikoak arin aldatzen dira, eta ez da



Pello Zabarte da Barbaroko kudeatzaile berria urtea hasi denetik.

komeni erlaxatzea, hain zuzen ere, Euskal Herriko beste lurralde batzuetan, batez ere euskaldunak diren eremuetan, atzerapau-soak egin direlako erabileran.

Euskalgintzak duen erronketariko

bat hiztunen komunitatea geroago eta gehiago aktibatzea da. Nondik eragin dezakegu?

P.Z.: Orain aste batzuk Topaldia egin zen, Euskaltzaleen Topaguneko eragileen urteroko jardun-

naldia. Bertan landuriko ardatz nagusietariko bat horixe zen, hain zuzen ere. Sakatu beharreko tekla zehatza zein den ez dago argi, baina bide horretan jarraitu behar dugulakoan nago, Berba-

ron legez, orain arteko tresnei eusten eta garai berrietara egokituta, berrikuntzaren bidetik berriak sortzen.

M.S.: Iruditzen zait euskara hutsean funtzionatuko duten ekosistema txikiak sortzeko gai izan behar dugula. Deituiezu ekosistema horiei euskara hutsean arituko diren talde, ingurune, leku edo momentu batzuk. Horixe da Berbarok bere historian egin duena. Eraz eta Anboto, Plateruena, Di-Da komunikazio agentzia. Tresna horiek guztiak hutsune batzuk betetzeko eta euskara hutsean lan egiteko sortu ziren. Eta maila txikiagoan ere berba egin dezakegu. Karrika bati buruz, adibidez. Euskaraz funtzionatzen duen taldea da, autonomoa, bere ibilbidea izan duena. Gero, egia esan, Pellok esan duen legez, oso gatx da tekla horiek non dauden asmatzea. Hau guzti hau ez diot sorturiko proiektuak Berbaroren zati izateko. Berbarok lagundu dezake, beste hainbatez batera, proiektuak sortzen, ondoren proiektu horiek bere ibilbide propio eta autonomoa izan dezaten.

Enpresa handien antzera, txikitik bada ere, ikerketa, garapena eta berrikuntza behar ditugu?

M.S.: Eremu digitaletik begirata, euskalgintzarentzat gatx da Netflix edo Play Station gailuen

aurrean aisialdi eskaintza bat egitea. Gatx da alternatibak planteatzea, baina sinetsita nago tokikotasunean, eskualdeari begirako gauza txikietan, badagoela bidea egiteko. Aurrekontu handirik behar ez duten kontuak izan daitezke; Durangori buruzko jolas bat, esaterako.

P.Z.: Bai, txikitetasunetik ekinda, tokikotasunetik ekinda, badago zer egin. Adibidez, Mankomunitateagaz batera eginiko Zeresana

“Euskara hutsean funtzionatuko duten ekosistema txikiak sortzeko gai izan behar dugu”

dokumentala aipatuko nuke. Aurrera begira ere badugu beste proiektu bat esku artean. Oraingo ezin dugu izenik esan, baina sare sozialei begirako ikus-entzunezko proiektu bat izango dela aurreratu dezakegu. Bertan, bideo laburrak eta arinak egingo ditugu euskaraz bizi diren Durangoko eta eskualdeko kirolariek. Proiektuak itxura polita du.

ura URAREN EUSKAL AGENTZIA AGENCIA VASCA DEL AGUA

EUSKADIKO ITUN BERDEA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko Emakume Chef Onena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO
INDARTSUAGORIK**

www.indartsuagoak.eus

DOPAk salatu du Durangoko osasungintzaren egoera "jasangaitza" dela

Plataformako kideek elkarretaratzea egin zuten martitzenean, Durangoko anbulatorioaren aurrean. Martxoaren 16an Bilbon, Donostian eta Gasteizen manifestazio bana egitea pentsatzen dabilta

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

DOPAk, Durango Osasungintza Publikoaren Alde plataformak deituta, martitzenean elkarretaratzea egin zuten Landakoko Osasun Zentroaren aurrean. Plataformaren ustez, Durangoko osasungintza publikoaren egoera "jasangaitza" da. "Osakidetzak

berriro eten ditu lehen mailako arreta eta larrialdiak. Durangon ez dira oporretan edo bajan dauden pertsonak ordezkatzen", esan zuten. Gabezia gehiago ere salatu dute. "Hilabete itxaron behar du gu familiako medikuekin ordua hartzeko, gutxienez mediku bi gehiago behar direlako. Larrial-

dietan, denborak biziak salbatzen dituenen, askotan mediku bakarra egoten da. Ondorioz, ez dago asistentziarik etxerik etxe edo adinekoen egoitzetan, eta ordubete baino gehiago itxaron beharko da osasun arreta jasotzeko. Eta espezialistengana joateko itxaron-zerrendak urtebetera artekoak dira".

Manifestazioak buruan

DOPAk kideek elkarretaratzean iragarri zuten herririk herri "kalitatezko osasungintza publikoa" eskatzeko sortuta dauden plataformek batzar bat egingo dutela zapatuan, otsailak 17. Horrez gainera, aurreratu zuten martxoaren 16an Bilbon, Donostian eta Gasteizen manifestazio bana egiteko aukera mahai gainean dutela.



Landakoko osasun etxearen atarian egin zuten elkarretaratzea.

Merkatu plaza konpontzeko lanak direla eta, baserritarren azoka Andra Mariko elizpean

Udal langileen azterketak ondorioztatu du teiltuari eusten dion habeetariko bat konpondu egin behar dela



Durangoko merkatu plaza.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak hainbat konponketa lan egingo du merkatu plazan. Zehatz esanda, baserritarren merkatua egiten den eremuan esku hartuko dute, teiltuari eusten dion habeetariko bat konpondu egin behar delako. Hori dela eta, eremua zarratuta egongo da hainbat astean, eta zapatuetako baserritarren merkatua Andra Mariko elizpea lekualdatuko dute. Egitura konpontzeko lanek hilabeteko iraupena izango dute gutxi gorabehera. Altueran lan egiteko makina bereziak sartuko dituzte

bertara. Udalak 47.725 euro ipiniko ditu lanok egiteko, eta iragarri du "datozen urteetan eraikinaren birgaitze osoa" egingo duela.

25 postu

Betiko antzera, 25 izango dira Andra Mariko elizpean etxeko ortuariak saltzen egongo diren eskualdeko baserritarrak. Besteak beste, produktu hauek erosi daitezke bertan: sasoiko fruta eta barazkiak, loreak, landareak, landare sikuak, gazta, esnekiak, kontserbak, hestebeteak, arrautzak, fruitu sikuak, ezta eta gozokiak.

Deabruaren Zubia ordezkatzeko duen pasabidea egiteko lanak, martxan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Dagoeneko hasi dira Deabruaren Zubia ordezkatzeko duen pasabidea egiten Ibaizabal errekan, Iurreta eta Durango artean. Zubi berria aurrekoa zegoen leku berean egingo dute, eta obrak Arripausuetako UE-16 sektorean etxebizitzak egiten

dabilen sustatzaileak hartuko ditu bere gain. Lanak hiru hilabeteren epean amaitzea dago aurreikusita. Zubi berria 42,6 metro luze eta 2,48 metro zabal izango da. Proiektua egiteko lehenengo pausoa zubiaren oinarriak prestatzea izango da, erreka bazterretan

hormigoitze lanak eginda. Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak adierazi du pasarela berriak, zaharraz alderatuta, "nabarmen" hobetuko duela irisgarritasuna. "Ez du eskailearik izango eta zabalagoa izango da; udalerrri atsegina eta irisgarriago bat eraikitzeke dugun konpromisoa islatuz, zubi honeguz durangar guztiak hartu ditugu kontuan", azpimarratu du alkateak.



Etorkizuneko pasabideak honako itxura hau hartuko du gutxi gorabehera.

anboto >

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko otsailaren 16a
22. urtea - 968. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Fumbarri enpresan teilatutik behera jausitako beharginaren lan heriotza salatu dute Durangon

45 urteko behargina zen eta lantegiko teilatua konpontzen zebilen azpikontraturiko enpresa batentzat. Fumbarriko langileek lanuztea eta elkarretaratzea egin zituzten



Eguaztenean, langileek elkarretaratzea egin zuten enpresa atarian.

DURANGO • J.G./E.H./J.D.

Martitzenean lan istripua gertatu zen Durangoko Fumbarri enpresan, 10:50ean. Segurtasun Sailak jakinarazi zuenez, 45 urteko behargin bat jausi egin zen enpresako teilatua konpontzen zebilela. Larrialdi zerbitzuak enpresara joan ziren, baina ezin izan zuten ezer egin langilearen bizia salbatzeko. Behargina azpikontraturiko enpresa batentzat zebilen lanean. Lan heriotzaren ondorioz, enpresak bere jarduna eten zuen martitzenean. Eta eguaztenean, LAB eta CCOO sindikatuak osaturiko enpresa komiteak deituta, geldialdia eta elkarretaratzea egin zituzten enpresaren aurrean.

LAB sindikatuak gertaturikoa salatu zuen ohar baten bitartez.

"Jasoriko lehenengo datuen arabera, langileak arnesa ipinita zeukan eta litekeena da loturarik eduki ez izana edo honek huts egin izana. Obretan ohikoa da segurtasun neurriak bermatu behar dituen errekurtsio prebentiborik ez izatea, eta, hartara, langileak segurtasunik barik lan egitera behartuta egoten dira une askotan, bitartekorik ez zailako bermatzen", azaldu zuen sindikatuak martitzenean. Gertaturikoa "onartezina" dela gaineratu dute, eta gogoratu urtea hasi zenetik Euskal Herrian hamalau behargin hil direla lanean zebiltzala. Hildakoetariko hiru, altuera batetik behera jausita. LABek samina eta elkartasuna adierazi zizkien hildako langilearen senide, lagun eta lankideei.

DBHko eta Batxilergo ikasketak eskainiko dituen zentro berria egingo dute Urritxen

Eraikin berria gaur egungoaren ondoan egongo da. Zornotzako Udalak lurra utziko dizkio Eusko Jaurlaritzari



Urritxe ikastetxea.

ZORNOTZA • AITOR RUIZ

Zornotzako Urritxe institutuaren ondoan eraikin berri bat egingo dute, bertan DBHko eta Batxilergoko ikasketak eskaintzeko. Zornotzako Udalak jakinarazi duenez, Hezkuntza Saila arkitektura-azterlana egin ahal izateko lanetan dabil momentu honetan. Zehatz esanda, azterlana egin ahal izateko kontratazio pleguak idazten dabilta. Eraikin berria egiten duten bitartean, oraingo institutua erabiliko dute ikasketa zerbitzua eskaintzeko. Lana amaiturikoan, eraikin zaharra bota egingo dute. Lanbide Heziketako zikloek gaur egungo kokapen

berean jarraituko dute. Zornotzako alkate Ainhoa Salterainek albiste "bikaina" dela esan du: "Zornotzako familiak dira gure

Hezkuntza Saila arkitektura-azterlana egin ahal izateko lanetan dabil momentu honetan

lehenasuna, eta hezkuntza gune berri bat izatea, berriztua eta hezkuntza-beharrizan berrietara egokitua, funtsezkoa da gure herriko eta inguruko gazteentzat".



Gure ikasleen ahotan

"Irakasleek lehenengo egunetik eskaintzen duten gertutasuna goraiagarria da"

Lehen Hezkuntza graduako 3. mailan zaude. Zergatik aukeratu zenenu gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?
Irakaslea txikitatik gustatu izan zaidan ogibidea da. Gainera, familiatik datorkidan zerbait da, senide asko irakasleak baitira. Hezkuntzaren parte izan nahi dut eta ikasleen bidelaguna. Nire anaiak Mondragon Unibertsitatean ikasi zuen eta, bere esperientzia ikusi ondoren, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean ikastea erabaki nuen. Bertako Lehen Hezkuntza graduako plana eta metodologia oso erakargarriak iruditu zitzaizkidan. Eta nire heziketa guztia euskaraz jaso nuen, euskaraz ikasten jarraitu nahi nuen eta inguru euskaldun batean.

Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?
Hiru urte daramatzat unibertsitatean, eta orain arte bizi izan dudana esperientzia izugarria izan da. Leku desberdinetako pertsona ugari ezagutu ditut eta ideia desberdinak dituen pertsonen inguratzea oso aberasgarria iruditu zait. Horretaz gain, oso gustura sentitzen naiz erabiltzen den metodologiarekin, nire ezaugarriak indartzen ditu-eta.

Zer metodologia erabiltzen duzue?
Niretzat guztiz berria zen metodologia bat erabiltzen da unibertsitate honetan. Fakultatean, lehenengo mailatik presente izaten ditugu unibertsitatean landu nahi diren zappi ezaugarri pertsonalak. Ezaugarri hauek kompetentzia desberdinak dira, kurtso eta moduluetan zehar gaintzen joaten garenak.

Unibertsitate honetan ez daude ikasgaiak edo arloak, baizik eta moduluak. Ikasurte bakoitzean hainbat modulu daude eta hauetan kompetentzia desberdinak lantzen eta gaintzen joaten gara.

Ebaluatzeko modua ere desberdina da, ez dago azterketarik. Hemen gure lana eta garapena baloratzen dira, eta ebaluazio kuantitatiboari ez zaio hainbesteko garrantzia ematen, ebaluazio kualitatiboari garrantzi handiagoa ematen baita. Hau da, notak garrantzia du, noski, baina bakoitzak izan duen garapena, jasotzen ditugun feedback-ak eta barneratutako ideiek garrantzi handiagoa dute.

Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna?
Irakasleek lehenengo egunetik eskaintzen duten gertutasuna goraiagarria da. Unibertsitate hau eremu seguru bat bezala ikusten dut. Ikasle bakoitza kontuan hartzen da eta bakoitzari behar zaion denbora eskaintzen zaio. Horrez gain, euskarari ematen zaion garrantzia ere aipagarria iruditzen zait.

Etorkizunari begira zein asmo daukazu?
Printzipioz, beste gradu bat egiteko asmoa daukat, nire burua hobeto prestatzeko lan mundura aurkeztu aurretik. Lehen aukera Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ikastea izango litzateke. Horrez gain, beste ideia batzuk ditut buruan; adibidez, Euskal Filologia gradua ikastea edo digitalizazioari buruzko master bat egitea.

Izen-abizenak: **PEIO MOLINA JAUREGI**
Herria: **Durango**
Adina: **20 urte**
Gradua: **Lehen Hezkuntza gradua, Gorputz Hezkuntza aipamena**
Zaletasunak: **kirola egitea, irakurtzea eta pelikulak ikustea**

Traña-Matienako pediatria zerbitzua ez duela beteko esan dio Osakidetzak udalari

Abadiñoako Udalak Traña-Matienan pediatria zerbitzua egotea exijitu dio Osakidetzari



2022an pediatria zerbitzuaren murrizketengaitik egindako elkarretaratzea.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Pediatra erretiratu zenetik, Traña-Matienan arazoak dituzte pediatria zerbitzuagaz. Harrezkero, herritarrek hainbat eskari eta mobilizazio egin dute, eta udalak hainbat batzar egin du Osakidetzagaz. Udaletik jakinarazi dutenez, joan zen astean

izan zuten Osakidetzaren azken proposamenaren berri, "baina ez da nahikoa". 0tik 6 urtera bitarteko umeak Zelaietako zentroan artatuko dituzte, eta 7tik 14 urtera bitarteko gazteak Zaldibarran, Berrizen edo Elorrioren.

"Abendu erdialdean bilera izan genuen ESiko arduradunekin,

eta, hainbat errekerimendu egin arren, joan zen astera arte ez ziguten behin betiko erantzunik eman. Konponbide hori ez da guk planteatzen duguna, familiak inguruko udalerrietara mugitzera behartzen dituelako. Gure eskakizuna Traña-Matienan pediatria zerbitzua izatea da, familiek beti izan duten moduan. Osasun arloan aurrerapausoak eman behar ditugu, kalitate handiagoko zerbitzurantz, eta ez alderantziz", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

Edurne Maguregi alkateordeak azpimarratu duenez, hile bi hauetan Osakidetzako arduradunekin hartu-emanen egon arren, komunikazioa denboran zehar tartekatu da. "Ez gure gobernu taldeak hala erabaki duela. Gainera, oraindino ez dituzte 7tik 14 urtera bitarteko gazteak banatzeko irizpideak zehaztu; arreta Zaldibarko, Berrizko edo Elorrioko zentroetan baino ez dutela emango esan dute, ez besterik", argitu du.

Bestalde, Abadiñoako Udaletik nabarmendu gura izan dute Traña-Matienan pediatria zerbitzua funtsezkoa eta ezinbestekoa dela, eta herritarrek edo udalbatzak bultzaturiko edozein ekimen edo mobilizazio babestuko dutela kalitatezko zerbitzu bat lortzeko.

Ordenantza prest Goieta kaleko ikasgela zabaltzeko

Elorrioko Udaletik jakinarazi dutenez, azken ikutuak baino ez zaizkie falta Goietako ikasgela inauguratzeko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udala Goieta kaleko 42an duen lokalean ikasgela egokitzen hasi zen iaz, eta azken ikutuak baino ez zaizkio falta inauguratzeko. Aste batzuk barru zabalduko dute.

Otsailaren 1ean eginiko osoko bilkuran, Elorrioko Udalak ikasgelaren erabilera arautzeko ordenantza onartu zuen, aho batez. Ikasgelako erabiltzaileek 16 urte izan beharko dituzte gutxienez, eta Elorrioren erroldatuta

egon beharko dute. Atxondoko ikasleek ere izango dute ikasgela erabiltzeko aukera, dagokion eskabide orria bete ondoren.

Ikasgela egunero erabili ahal izango da. Astelehentik barikura 08:00etatik 22:00etara, eta zapatu, domeka eta jaiegunetan 08:00etatik 20:00etara. Udaletik esan dutenez, debekatuta egongo da ezarritako ordutegitik kanpora lokala erabiltzea, eta garrantzitsua da ordutegi hori errespetatzea.



Goieta kaleko ikasgela.

2024ko aurrekontuaren bitartez, "Atxondo biziberritzeko eta herritarren beharrianak asetzeko" apustua egin dute

Atxondoko Udalak 2.100.570 euroko aurrekontua izango du 2024an. EH Bilduko zinegotzien aldeko botoekin onartu dute



Martitzeneko osoko bilkurako argazkia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak 2024ko aurrekontua onartu zuen martitzen arratsaldean eginiko osoko bilkuran. Azaldu zuten, herritarrek dituzten beharrianak erantzutea helburu duen aurrekontua da. "Herria zaintzeko eta biziberritzeko aurrekontua izango da, bai mantentze-lanetan baita kultur arloan ere", adierazi du Eneitz Agirre alkateak. Atxondok 2.100.570 euroko aurrekontua izango du 2024an, EH Bilduko bost zinegotzien aldeko botoekin onarturikoa. Osoko bilkuran egon ziren EAJko zinegotzi biek aurrekontuaren kontra egin zuten.

Aurrekontuetako inbertsioei dagokienez, Apatako plazan komun publikoa ipintzea da proiekturik nagusienetarikoa. 25.456

euro ipiniko dituzte lan hauekarako, eta, udaletik azaldu dutenez, proiektu hau herritarrek sarritan eskaturiko zerbitzua da. Jaietarako prest izatea espero dute. Bestalde, Atxondoko Udalak "ondo hesi" gura du Barraskiko bigarren zatia, "arriskua ekidin eta segurtasuna bermatzeko". Itxitura horretarako, 15.000 euro ipiniko dituzte. HAPOari dagokionez, iaz hasitako lanketaz jarraituko dutela azaldu dute, eta, auzoei eta herriguneari dagokienez, batzarrak egiten jarraituko dutela gaineratu dute, herritarren beharrianak bertatik bertara ezagutzeko. Horrez gainera, udalak 40.000 euro aurreikusitako herriko hainbat bide asfaltatzeko, eta 3.000 euro argiztapena hobetzeko.

Kultura bultzatzen

Aurten ere Atxondoko Udalak kultur arloa bultzatzeko ahalegin berezia egingo duela azaldu dute. Eta, horretarako, herritarrekin osatuta dagoen kultur mahaia sustatzen jarraitzeko, talde horri ematen zaion diru laguntza handituko dutela jakinarazi dute. 2.000 eurotik 8.000 eurora igoko dute kultur mahaiari emandako laguntza.

Apatako plazan komun publikoa ipiniko dute; jaietako prest izatea da udalaren asmoa

Soberakinaren zain

Bestalde, aurrekontuetan sartu barik geratu diren proiektuak 2023ko soberakina jasotzerakoan erabakiko direla aurreratu du Atxondoko Udalak. Eta, horretarako, prozesu parte hartzaile bat martxan ipini gura dutela.

Ostalaritza gida


DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Hemengo eta kanpoko platerak, kalitatezko eta gertuko produktuez prestatuak. Eguneko menua eta karta. Etorri ta eroan!

 @basa.durango



DURANGO

IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behea
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna


ZORNOTZA

XIBERU



Zezenia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna

 @xiberutaberna



MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Udalak beste ahalegin bat egingo du Mañariko Denda berriro zabaltzeko. Aste honetan, esleipena lehiaketara atera dute eta martxoaren 1era arteko epea dago eskaintzak aurkezteko. Jendea erakarri guran, baldintzak inoiz baino malguagoak dira. Ainara Otxotorena alkateak aurreratu du "azken ahalegina" izango dela. Helburua lortu ezik "beste erabilera bat" eman beharko zaiola esan du.

Jendea erakarri guran hartu duten lehenengo erabakia alokairuko prezioari dagokio: hilean 50 eurotan ipini dute. Aurreko lehiaketara atera zutenean, prezioa 300 eurokoa izan zen. Ordutegia ere malgotu dute: astean 25 orduz egon beharko da zabalik gutxienez, norberak erabakitzen duen ordutegian. Orain arteko baldintza-orriak zehazten zuen astelehenetik barikura goiz eta arratsalde egon behar zela zabalik, eta zapatu goizetan ere bai. Lehengo eskakizunagaz "lagun bi behar ziren eta orain, seguruenik, bategaz nahikoa izan daiteke", zehaztu du Otxotorenak. Azkenik, esleipena bost urterakoa izango da, lau urterakoa barik.

Denda berriro zabaldua, oinarriko elikadura, garbiketa eta higie produktua herrian bertan erosteko aukera eskaini gura diete herritarrei, eta horrela jasotzen da baldintza-orrian ere. Horretarako beharrezkoak diren azpiegitura guztiagaz hornituta dago Ebaristo Bustintza kaleko 19. zenbakiko lokala. Bere sasoian, udalak obrak

Mañariko Denda zabaltzeko azken ahalegina: baldintzak asko malgotuta atera dute lehiaketara

Denda zabalik egon beharreko ordutegia nahiz ordu kopurua txikiagoak dira eta alokairua, berriz, merkeagoa



Ebaristo Bustintza kaleko 19. zenbakian dago lokala.

egin zituen lokalean azpiegiturak hobetzeko.

2020tik bueltaka

2020ko otsailean Mañariko Denda—Rafa Harategia lez ezagautzen

zen—arduradunak erretiroa hartu zuen, 50 urtean bertan lanean ibili eta gero. Orduan, udalak lehiaketa hasi zuen arduradun berriak bilatzeko. 2021eko maiatzean berriro zabaldu zuten, baina ez zuen fun-

tzionatu eta hile batzuk baino ez zuen iraun, 2021eko uztaila amaitu arte. Harrezkero, ez dago mota horretako dendarik Mañarian. Gaur egun, bertako produktuak ekoizten dituzten baserritar batzuen

eta euren bezeroen arteko banaketa-puntu legeaz erabiltzen da. Inoiz, arraindegi baten banaketa puntu legeaz ere erabili izan da, baina denbora gutxian, hilabete inguru baino ez.

Otxandion martxan da Korrikarako ekintzak lantzeko

Euskararen aldeko martxa martxoaren 22ko gauerdian igaroko da Otxandiotik, eta ospakizun bat izatea gura dute

OTXANDIO • J.D.

Hilabete eskas falta da Korrika Durangaldera heltzeko. Birritan igaroko da eskualdetik, eta bigarren pasaldian, martxoaren 22an, Otxandiotik pasatuko da. Gauerdian sartuko da Otxandion eta Ospital kalea zeharka-

tuko du, besteak beste. Otxandiarrek dagoeneko hasi dira Korrikaren etorrera prestatzen. Egun hori ospakizun bat izatea gura dute (musika, dantza, afari herrikoa...) eta 15 bat laguneko lantaldea sortu dute ekimenak prestatzeko.



Korrikara begira Otxandion sortu duten lantaldea. OTXANDIOKO UDALA

Izurtzako argiteria publikoa LED argietara aldatu dute

LED teknologiak modu efizienteagoan igortzen du energia; herriguneko nahiz auzoetako argiteria berritu dute

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak herriko kale argiteria aldatu du, ohiko sistematik ezeffizienteagoa den LED argietara. Argiteria osoa aldatu dute, herriguneko nahiz auzoetako. Lehiaketa publiko baten ondoren, udalak Guadalajarako

enpresa bati esleitu zion LED argiak ipintzeko ardura. Enpresa honek otsail hasierako hiru egunean egin zituen lanak. Proiektuak 20.000 euroko inbertsioa eskatu du eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntza baten bitartez estali dute.



20.000 euroko inbertsioa eskatu du LED argiak jartzeak.

Frontenis txapelketa mistorako izen ematea hasi dute Mallabian

MALLABIA • J.D.

Mallabian frontenis txapelketa mistoa antolatu dute martxoaren 16rako eta izen ematea asteon hasi da. Txapelketa Mallabiko pilotalekuan jokatuko da eta bitan banatuta egongo da. Lehenengo, 09:00etan, eskualdeko faseak jokatuko dituzte Durangaldea, Artibai, Debarrena eta Debagoiena eskualdeetako bikoteen artean. Ondoren, 11:00etan, txapelketa orokorra hasiko da. Orokorreko bikote irabazleak 400 euro jasoko ditu, txapelkunordeak 250 euro eta hirugarrenak 150 euro. Eskualde mailako txapelkunak 100 euro jasoko ditu. Izen ematea 10 euro da bikoteko Mallabia K.E.-ko bazkideentzat, eta 20 euro gainerakoentzat.

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2024

*Eman botoa inauterietako
argazki lehiaketan, otsailaren
15etik 21era bitartean*

Webgunean botorik gehien
jasotzen duen argazkiaren egileak
Errigora-ren otzara bat
irabaziko du



anboto
kide

Anbotokideen txokoa

OTSAILEKO ZOZKETAK



Etxera eramateko eguneko menu bat Bassaren eskutik.



Errigorako otzara eder bat.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

- 'Kantuak berbekaz bete': Maider Eguren Oleaga
- 'Loti Ederrak': Mikel Gerediaga Bustinza
- 'Kutxartean': Garikoitz Elistondo Sarraoa
- 'Shine (Lasala)': Iñaki Guridi Ormazabal
- 'Muna': Txaro Otzerinjaregi Iza
- Gosaria Xiberun: Amaia Iturriagaetxebarria Amezua

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



'Kilo bat elikagai errefuxiatuentzat, liburu bat zuretzat' kanpaina martxan da lurretan, otsailaren 20ra arte

Lurretako kanpaina solidario honetan baturiko elikagaiak Río de Oro Durangaldea GKerri emango dizkiote Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Lurretako Udalak, Río de Oro Durangaldea GKEagaz elkarlanean, *Kilo bat elikagai errefuxiatuentzat, liburu bat zuretzat!* kanpaina solidarioa hasi du. Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan duten elikagai falta asetzen laguntzeko ahalik eta elikagairik gehien eramatea du helburu ekimenak.

pasta, lekaleak, atun latak, sardina latak, azukrea eta oliba olioia batu

Emaniko kilo bat elikagairen edo konpresa-paketeen truke, herritarrek liburu bat eramango dute

kilo bat elikagairen edo konpresa-paketeen truke, herritarrek liburu bat eramango dute. Kanpainak otsailaren 20ra bitartean iraungo du.

Trukatzen diren liburuak erakundeek eta partikularrek herri bibliotekari eginiko liburu dohaintzatik datoz, udal ordezkariak oharrean azaldu dutenez. Elikagaiak biltzeko kanpaina parte hartzea bultzatzeaz gainera, ekimenagaz irakurzaletasuna sustatu gura dutela gaineratu dute.

Elikagai eske

Kanpainaren bultzatzaileek batez ere arrosa, konpresa-paketeak,

gura dituzte saharar errefuxiatuen kanpamenduetara bidaltzeko. Eta dohaintzan emaniko horietariko



Herritartasuna Batzordeko kideak.

Garbigune Mugikorak ipini dituzte Berrizen eta Zaldibarren, birziklapena bultzatzeko

Bilketa puntuak otsailaren 20ra arte egongo dira erabilgarri



Zaldibarko Garbigune Mugikorra.

BERRIZ / ZALDIBAR • J.G.

Birziklapena bultzatu guran, Garbigune Mugikor bana ipini dute Berrizko Geltoki kalean eta Zaldibarko udaletxe aurrean. Horrela, gura duten herritarrek etxeko tresna elektriko txikiak, sukaldeko tresnak, sukaldeko olioia (ontzi itxia), telefono mugikorak, kableak, pinturak, disolbatzaileak,

Garbigune Mugikorak Berrizko Geltoki kalean eta Zaldibarko udaletxe aurrean ipini dituzte

aerosolak, xurgatzaile kutsatuak, tonerrak, tinta-kartutxoak, kapsula metalikoak, kapsula plastikoak, pilak, CDak, DVDak eta kaseteak bertan uzteko aukera izango dute. Hartara, herritarrek ohiko Garbiguneetara joan beharrean, zerbitzu hori herrian bertan ipini dute.

Garaiko errelebokako duatloian 19 taldek parte hartuko dute

Probak domekan izango dira, 10:00etan. Lehiatuko direnen artean, Mugarra, Indarpak eta Garaiko taldea daude

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko errelebokako duatloian proba bero-bero dator, iazko izen emate kopurua erraz gaindituta. Iaz zortzi taldek parte hartu zuten eta antolatzaileek kopurua bikoiztea lortu dute aurten. Domekan 61 kirolarik parte hartuko dute, hemeretzi taldek osaturiko norgehiagokan. Antolatzaileek aitortu dutenez, "oso pozik" daude: "Jendeak ederto erantzun du". Eta esaera ezagunak dioten moduan, etxean goxo, lehiatuko diren taldeetarako asko eskualdekoak

izango dira eta: Mugarra triatloia klubeko lau talde, Indarpak klubeko bat eta Garaiko bertako beste talde bat. Hiru kategoria proba egongo dira: emakumeena, gizonena eta mistoa. Mistoen proba 10:00etan hasiko da, eta gizonena eta emakumeena minutu bat eta bi geroago, hurrenez hurren.

Proba desberdin bat ikusi gura duenak horretarako aukera izango du domekan. Antolatzaileek, behintzat, Garaira bertaratzeko deialdia egin dute.



Iazko kirol probako une bat.

Mediku zerbitzua berreskuratzeko bideari ekin diote Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Gaur egun Garai da mediku kontsultategirik ez duen Durangaldeko udalherri bakarra, baina egoera goitik behera aldatu daiteke etorkizunean. Erramun Osa

alkatea eta Gotzone Sagardui osasun sailburua Garaiko udalletean batu ziren eguaztenean, 2015ean galduriko mediku zerbitzua berreskuratzeko dauden aukerekin berba egiteko. Oraingoz

ez dago zerbitzua berrezartzeaz buruzko data zehatzik, baina alde biek "lanean segitzeko konpromisoa" hartu dute herriak etorkizunean mediku zerbitzua izan dezan. Garaiko Udalak jakinarazi duenez, Sagardui sailburuak "gaia berariaz aztertze konpromisoa" hartu du aurten,



Gotzone Sagardui eta Erramun Osa.

Zerbitzua berrezartzeko data zehatzik egon ez arren, lanean jarraitzeko konpromisoa agertu dute

eta "konpromiso horri erantzunez" egin zuten, hain zuzen ere, bilera. Osak gogoratu du joan zen agintaldian hasi zituela mediku zerbitzua berreskuratzeko pausoak, baina izurriak eta egungo "mediku faltak" itxaronaldia luzatu dutela gaineratu du.

Osakidetzak 2014ko abenduan jakinarazi zion Garaiko Udalari herrian ez zuela mediku zerbitzurik gehiago eskainiko. Momentu hartara arte, Berrizko medikua astean birritan igotzen zen Garaira herritarrak artatzen. Baina 2015etik hona garaitarrek Berrizko kontsultategira joan behar izaten dute.

Langile bat kontratatuta, gizarte arloa indartu dute Elorrion eta Abadiñon

Mankomunitatearen laguntzagaz kontratatu dute langilea. Lanaldi osoa izango du; astelehenetan Elorrion egongo da, eguaztenean Abadiñon, eta gainerako egunetan Durangon

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mankomunitateak gizarte langile bat kontratatu du gizarte arloko indartzeko. Langileak lanaldi osoa izango du; astelehenetan Elorrion egongo da, udaletxean, eta eguaztenean Abadiñon, Zelaietako bulegoan. Gainerako egunetan Galtzaretan (Durango) egongo da. Durangon, zereginen pilaketagaz zerikusia duten barne lanak egingo ditu. "Erfortzu hau ezartzeak Mankomunitateak eta Abadiñoko eta Elorrioko udalek euren gizarte arloa hobetzeko duten konpromisoa erakusten du", adierazi dute Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea eta Ainara Otxotorena presidenteordea.



Julene Lazkano, Ainara Otxotorena, Ederne Maguregi, Mikel Urrutia eta Idoia Otaduy.

Konfiantzan hazi eta hezi

MATRIKULA EPEA ZABALIK OTSAILAREN 7tik 23ra!

Bisita pertsonalizatuak eskaintzen ditugu urte osoan zehar.

Bruno Mauricio Zabala Kalea, 6
48200 Durango, Bizkaia

neversikastetxea.com

946 81 09 46

@neversikastetxea

Otsailaren 21era arte eman daiteke botoa ANBOToren argazki lehiaketan

Anbotoko irakurleek aukeratuko dute zein argazki jasoko duen saria: Errigorako otzara



Lehiaketako argazkietariko bat.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beste urte batez, ANBOTOk Inauterietako argazki lehiaketa antolatu du eta hainbat herritarrek parte hartu dute bertan. Hainbat izan dira lehiaketara aurkezturiko argazkiak. Mozorrorik originalenak gogoratzeko aukera izan daiteke.

Lehiaketa azken txanpan sartu da dagoeneko, eta mozorrorik politena, irudimentsuena... aukeratzeko momentua heldu da. Aukeraketa www.anboto.org webguneko botoen bitartez egingo da eta ANBOTOk irakurleek otsailaren 21era bitartean (10:00) izango dute aukera euren argazkirik gustukoena aukeratzeko bertan. Egun horietan botorik gehien jasotzen duen argazkiak Errigorako otzara eder bat irabaziko du.

Politikan

Patxi L. Lakunza



Herriaren Eskubidea - Durangoko independenteak

Guztionezko aurrekontuak?

Irudimen ariketa bat proposatzen dizut. Itxi begiak eta imajinatu bikote bat ezgaitasuna duen alaba txiki batekin. Egunero hasten dira ohi baino pixka bat lehenago: esnatu, garbitu eta gosalduta eskolara garaiz iristeko. Han ikaskide eta irakasleek gozatzea tokatzen da, jolasten ikasteko lan goiztiar horretan bat gehiago izatea, integratua. Eskola-eguna gero eta biziagoa da, besteei baino ahalegin handiagoa kostatzen zaio, baina guztien laguntzarekin errazagoa egiten da.

Amaitu da egun hori, eta neskatila horrek eta bere familiak parkearen poza bizi behar dute distantzian, merienda egin behar dute gertu, baina inoiz ez parkearen barruan, parke horretan ez baitago berarentzat egokituriko elementurik. Eta ez dago, norbaitek erabaki duelako ez dela errentagarria.

A zer paradoxa! Gizarteratzea errentagarritasunaren arabera baloratzea. Neska hori egun bat gehiago geratzen da gainerakoek ahal dutenaz gozatu ezinik, eta etxera doa, norbaitek desberdin sentitzea eta kanpora joatea nahi duen sentsazioarekin. Badoa aitarekin eta amarekin etxera, beste egun batean kanpoan amaitzera, berarentzat egokitutako zabu batean dibertitzeko aukerarik gabe. Desberdina dela gogorazi nahi diote.

Orain ireki begiak, neska hori zure alaba da eta azaldu behar diozu bere zabua ez dela garrantzitsua, azaldu behar dizkiozu ekonomiaren legeak. Benetan uste duzu ume baten barrea errentagarritasunarekin neurtu daitekeela?

Iritzia

EUSKAL HERRIAREN ERAKUSGARRIA

Bizkaia. Bilbo. San Mames Berria. Partidu eguna. Kaleetan giro aparta. Usain berezia. Irabazteko gogo. Borrokarako grina. Dena duzu prest: bufanda, bokatak eta eztarria. Ahotsa taldea animatzen hasteko erne. Lehenengo aldia edo beste asteburu bat dela, berdin dio horrek, zelaira hurbiltzen ari zarela betiko urduritasuna berdegunean gerta daitekeen ezezagun horren aurrean. Garaipena? Porrota? Ikuskizun eskasa? Gola falta? Askotan norberak duen egonezin hori kontrola ezin dituen gauzengatik dator. Jokalariak ohituta daude milaka jenderen aurrean jokatzeko, zale horien guztien iritziak eta oihuak ezerezean geratzen dira jokatzeko hasi eta minutu batzuetara. Ohitura, zenbaitek dioten bezala. Zelaiko atletik sartu eta zure eserlekura zoazen bitartean urduritasun hori areagotzen doa barruan dagoen jendea zu bezain aztoratua ikustean, igartzen den zerbait da, batez ere partidua garrantzitsua bada. Partidua hasi baino lehen iluntasuna. Argien ikuskizun paregabea atzealdean txalaparta soinuarekin. Minutu batzuk geratzen direla norgehiagoka hasteko jokalariak zelaira ateratzen dira, partidua orduan hasteko. Zelai osoa batzen duen abestia. Athleticzale guztien orroa. Gure ereserkia: "Athleeeeeeeeeetic...!" Bufanda bi eskuekin helduz gora. Hotzikarak. Gorputzeko ile guztiak puntan. Kopa eta txapelketa europarra erditik ez dauden bitartean bi asterik behin entzun daitekeen soinu zirraragarria. Zoramena. Ordea, momentu batean dena eteten da. Bozgorailuetatik ez da soinu gehiago ateratzen. Markagai-

lua jartzen duten bi pantailetan ereserkiaren letra dago oraindik agerian, karaoke baten antzera, baina jendeak kantatzeari uzten dio. Indar guztia galtzen du aurretiko denbora txiki horretan irabazitako denak. Jendearen kantua ahulduz doa desagertzen den arte. Erdizka gelditzen da. Indargabetze horren ostean txaloak etorri ohi dira baina zerbait falta zaio, amaiera irmo bat, kolosala, denok batera. Zergatik? Zelaira doazen guztiek ez ote dakite ereserki osoaren letra edo? Benetako arrazoiaren ezagutza falta. Mistikotasunera itzuliz, San Mames zaharrean areagotu egiten ziren jendearen ahotsak abestia aurrera zihoala, bufandak airean oraindik zeudelarik. Guztion eztarrietatik aldi berean amaiezina zirudien kanta abestu egiten zen: "Athletic gorri-zuria, geuria". Hau bukatuta txalo zaparrada, harmailetan sekulako marmarra eta epailearen txilibitu soinua entzuteko zirrarara. Partidua hasi baino lehen zaleek lehen gola sartzen zuten. Ez diot orain ez denik partiduan zehar animatzen, ez. Partidu aurreko kalejira eta etxeko taldearen autobusari egiten zaion harrera apartak dira baita gaur egun ere, baina zerbait falta da. Otsailaren 29an zelaia infernu bihurtu nahi baldin badugu taldeari kopako finalera bidea urratzen laguntzeko eta partidua hasi baino lehen bertan gaudenok lehen gola sartzeko, guztiok jakin beharko genuke gure ereserkia hasieratik amaierara. Igarri dadila zein den gure nortasuna eta zein den euskal herriaren erakusgarria.

Iñaki Bidarte Garcia-Ariño

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA


- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



> anboto
kide

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)

Berria!

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimo litroko deskontua.



Egin zaitez ANBOTOKIDE eta baliatu abantailez!



'Euskaldungak'

ANTZERKIA ZORNOTZA:: Otsailak 16

Aroa Blancok eta Maite Lopezek 'Euskaldungak' lana estreinatuko dute

Taulela konpainiak *Euskaldungak* antzezlanarekin estreinatuko du, gaur, Zornotza Aretoan. Aroa Blancok eta Maite Lopezek euskaldun berri eta euskaldun zaharren artean ohikoak diren egoerak aurkeztuko dituzte, ikusleari ezagunak egingo zaizkion solasaldi, eztabaida eta txarto-ulertuak. Durangaldeko antzezle biek hainbat bider lan egin dute elkarregaz taula

gainean. Orain, bien artean egin dute obraren prozesu osoa, hasi eta amaitu. Emanaldia 20:00etan hasiko da.

Antzezle biak uda inguruan hasi ziren obra idazten, eta urri inguruan Patri Urrutiari deitu zioten, kanpoko begirada bat edukitzeko, azaldu dutenez. "Ikara apur bat ere badugu, baina, batez ere, gogo dugu taula gainera igotzeko", esan dute.

Otsailaren 16an

ABADIÑO ikuskizuna
L'Aparición (A Nariguda),
20:00etan, Amaraun Arte
Fabrikan.

ELORRIO kontzertua
Ke Lepo + Haira, 22:00etan.
Ondoren, **DJ Tibe B2B DJ Jkin**
Alonso, Ateneoan.

IURRETA antzerkia
'La casa de Bernarda Alba'
(**Sekné Teatro**), 19:00etan,
Ibarretxe kultur etxean.

ZALDIBAR ipuinak
Inauterietako ipuinak,
17:00etan eta 17:30etan,
Liburutegi zaharrean.

Otsailaren 17an

ABADIÑO sanblasak
XXXIV. Burduntzi Txapelketa,
09:00etan, probalekuan.
Ondoren, bazkaria egingo dute.

BERRIZ ikuskizuna
'Anonyme Popular', bertso
musikatuak Igor Elortzaren
eta Rafa Ruedaren eskutik,
19:00etan, Kultur Etxean.

ZORNOTZA kontzertuak
Zorber Fest: Ezpalak + Azken
Sutraiak + Perlata + Arcada
Social, 18:00etan, Zelaietako
karpa erraldoian.

Otsailaren 18an

DURANGO antzerkia
'Loti ederrak' (Glu Glu
Produksioak), 18:00etan, San
Agustin kulturgunean.

ELORRIO antzerkia
'Muna' (Ganso&Cia),
17:00etan, Arriola antzokian.

Otsailaren 21ean

ABADIÑO ipuinak
Ana Apika ipuin kontalaria,
17:00etan, Errota kultur etxean.
Lautik zortzi urtera bitarteko
umeentzako saioa.

Otsailaren 22an

ABADIÑO berbaldia
'Kabitu ezinik: Loditasunaz
harro, lodifobiaren kontra'
(**Hizlaria: Laura Galar Haur**
Hezkuntzako hezitzailea
eta lodifobiaren kontrako
aktibista), 19:00etan, Isiotu
elkartearen lokalean.

ZORNOTZA antzerkia
'Juicio al extranjero'
(**Barandi-Indubio**), 20:00etan,
Zornotza Aretoan.

Otsailaren 22ra

DURANGO izena ematea
Alto Campora irteera, 12tik
17 urtera arteko gazteentzat.
Alpino Tabira mendi elkarteak
antolatutako irteera martxoaren
9tik 10era izango da. Izen
ematea otsailaren 22ra arte,
19:00etatik 19:30era. Informazio
gehiago: 'www.alpino-tabira.org'

ZORNOTZA erakusketa
'Ikusi eta ikasi' erakusketa,
Zelaieta zentroko 1. pisuan.

Otsailaren 23an

ATXONDO antzerkia
'Erresistentzia arazo fisiko
bat da' (Maite Aizpurua
Olaizola), 20:30ean, Amillena
Arrazolako bentan.

BERRIZ antzerkia
'Kutxartean' (Teatro Paraíso),
17:00etan, Kultur Etxean.

IURRETA ipuinak
'Versos rebeldes'
helduentzako ipuin
kontaketa saioa (Haizea
Malabaricia eta Yoli Rebote),
19:00etan, bibliotekan.

IURRETA ipuinak
'Kontuak, kantuak eta
zenbait xelebrekeria' ipuin
kontaketa saioa (Itziar Saenz
de Ojer), 17:00etan, bibliotekan
(3-5 urte). Bilgaren saioa,
17:45ean (sei urtetik gora).

ELORRIO dantza
'Shine' (Lasala konpainia),
20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
'Nevenka' (Histrión Teatro),
20:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailean zehar

ELORRIO erakusketa
'Biribilak mendietan. Seres.
Kortak. Saroiak' erakusketa,
Iturri kultur etxean.

ZORNOTZA erakusketa
'Naizen emakumea', Zelaieta
zentroan. Errumaniako zazpi
arkitektoen lana eta bizitza
jasotzen duen erakusketa.

Martxoaren 17ra

DURANGO erakusketa
'Arketipoak' (Jenni Alvarado),
Arte eta Historia Museon.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **Patrick**
barikua 16: 17:00
domeka 18: 17:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Bob Marley: One Ove**
barikua 16: 18:30 / 21:00
zapata 17: 17:00 / 19:15 / 21:30
domeka 18: 17:00 / 19:30
astelehena 19: 18:00 / 20:15
martitza 20: 18:00 / 20:15
eguztzena 21: 19:00

• **Priscilla**
barikua 16: 18:30 / 21:00
zapata 17: 19:15 / 21:30
domeka 18: 19:30
astelehena 19: 18:00 / 20:15
martitza 20: 18:00 / 20:15
eguztzena 21: 19:00

• **Buscando a Coque**
barikua 16: 18:30 / 21:00
zapata 17: 17:00 / 19:15 / 21:30
domeka 18: 17:00 / 19:30
astelehena 19: 18:00 / 20:15
martitza 20: 18:00 / 20:15
eguztzena 21: 19:00

• **¡Corre, Tiger, corre!**
zapata 17: 17:00
domeka 18: 17:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Pobres criaturas**
zapata 17: 20:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Valle de sombras**
zapata 17: 20:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:15

• **El arca de Noé**
zapata 17: 17:00
domeka 18: 17:00

• **Bizi bat oroimenean.**
Xabier Amuriza
domeka 18: 12:00

• **Broker (JBGA)**
martitza 20: 20:15

ANBOTON ESKELAK IPINTZEKO NEURRIAK ETA PREZIOAK

Eskelak eta oroigarriak paperean





**Izena Abizena
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren
13an, 85 urte zituela

Testua / olerkia

Familiakoak




**Izena Abizena
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren
13an, 85 urte zituela

Testua / olerkia

Familiakoak



Prezioa 2x2 modulo

Paperean edo webgunean **75 €**
Anbotokideek 65 €

Paperean + webgunean **115 €**
Anbotokideek 105 €

Prezioa 3x2 modulo

Paperean edo webgunean **110 €**
Anbotokideek 100 €

Paperean + webgunean **150 €**
Anbotokideek 130 €

Eskelak webgunean

ESKELA

**Izena
Abizena Abizena**



DURANGO

2022ko maiatzaren
30ean hil zen.

ESKELA



Izena Abizena Abizena

Testua /Olerkia

Durango, 2022ko maiatzaren 30ean

Eskelak ipintzeko moduak:

- Anbotoren bitartez: **946 810 658** telefono zenbakira deituta edo **anboto@anboto.org**-ra idatzita
- Anbotoko bulegora etorrira: Bixente Kapanaga, 9 behea
- Ehorztetxearen bitartez

Eguazteneko 14:30ak arte jasoko dugu informazioa.

“Helburua ez da margora heltzea bakarrik, prozesu luzea ibiltzea baino, bertan gauza asko gertatzen delako”

Jenni Alvarado artista durangarraren 'Arketipoak' erakusketa Durangoko Arte eta Historia museoan egongo da, martxoaren 17ra arte



Jenni Alvarado Rodilla

Sortzailea

DURANGO | 1981

tela berdea zuten batzuk ikus-entzunezko formatuetarako pentsatuak ziren, jakinik gero bideo horretatik fotograma bat hartuko nuela margotzeko. Orain bai, orain banago pentsatzen ikus-entzunezko formaturako, baina denbora bat egon da eskulturatik margora jarraian jauzi egin dudana, baina bide hori asko gustatu izan zait. Askotan egin dut jauzi eskulturatik bideora, eta hortik eskulturara itzuli, eskulturatik bideora, eta bertako fotograma batetik pinturara.

“Askotan pasatu naiz eskulturatik bideora, eta hortik eskulturara berriro, eta bertako fotograma batetik pinturara”

Margoa, eskultura, ikus-entzunezkoak... hainbat diziplina jorratzen duzu. Zein da gustukoena duzuna?

Erabiltzen ditudan hiru hizkuntza dira, batzuetan bakarka, eta hirurak batuta ere bai. Presente izan ditut, erritual bat balitz legez, nire lan egitura ere erritual legez hartu daitekeelako. Nire bideoekin ere berdin. Motibatzen nauen zeozer da, baina ez da ezer konkretua... Nire bideoek zeozer magikoa dute, formatu hori dute, mistikoa eta iluna.

Horregaz lotuta, musikagaz ere baduzu hartu-eman.

Bai. Inaugurazio ekitaldian zuzeneko musika egon zen. Bestalde, Halibut proiektu elektronikoa osatzen duten kideekin ere lan egin dut. Bideoklip bat egiteko zen, baina, aldi berean, zeozer elkarregaz egiten genbiltzan, musika bideoagaz, eta bideoa musikagaz. Baina, bestela ere, gustuko dut musika oinarrian jarrita, konposatu bitartean, nik neure ikus-entzunezko lana egitea. Bestalde, musika taldeentzat azalak ere egin ditut, besteak beste. Lehen esan dudan moduan, prozesua da interesgarriena, eta dena bat balitz legez ikusten dut, emaitza desberdinekin, baina dena bat balitz legez.

MARGOLARITZA • ARITZ MALDONADO

Jenni Alvarado artista durangarraren 'Arketipoak' erakusketak aurreko astean zabaldu zituen ateak; margolanak ez ezik, eskulturak ere ipini ditu ikusgai Alvaradok, lehenengoz bere ibilbidean. Durangoko Arte eta Historia museoan egongo da erakusketa, martxoaren 17ra arte.

Zelan ate irekiera ekitaldia?

Oso ondo joan zen. Espazioa oso txukun geratu da. Erakusketa honek nobedade bat du, izan ere, lehenengoz eskulturak ere erakutsiko ditut; urte asko eman dut eskulturagaz lanean, baina orain arte ez dut erakusteko aukera ikusi, eta hau Durangon bertan zenez, zeozer berria gehitu gura nuen. Jende dezente etorri zen, eta kontzertu bat ere egon zen. Polita izan zen.

'Arketipoak'-en batu dituzun lanek zer dute lotura gisa?

Eskulturekin maskarak eta antzerako zeozer egiten hasi nintzen.

Gorputzaren erretratoak egiterakoan, deformatzeko baliatzen nituen eskultura horiek, irudi figuratibo horiek abstraktora pasatzeko, besteak beste. Hasieran ez ziren zeramikazkoak, baina eskulturak aberaste aldera, material gehiago erabiltzen hasi nintzen; geroago eta konplexuagoak izan dira, eta koadroetan galdu egiten da hori. Arketipoen ideiaz lotuta, hasierako eskultura edo maskarek ezaugarri batzuk zituzten, ez ziren oso konkretuak, baina hainbat kulturatan errepikatzen ziren ezaugarriak ikusten nizkien; adibidez, kolore gorriko maskarek lotsa edo gorrotoa sinbolizatzen zutenela ikusi nuen, oso sentimendu primitiboak. Baina ez dute esangura edo lotura konkreturik. Beharbada, material folklorikoa erabiltzen dudalako, lazoak edo oihalak estanpatuekin, zeozer arketipikoa izan daiteke; aurpegia estalita agertzen diren pertsonak pertsonaia bihurtzen dira.

Margolan eta eskulturen artean lotura hori dago?

Eskultura batzuk margoetan ikusi daitezke, eta beste batzuk, agian, ezkutuan daude. Baina haien arteko komunikazio forma bat sortzen da erakusketan ikusterakoan.

Lanetarikoz batzuek Lantzeko inauteriak ekartzen dituzte gogora. Zein hartu-eman duzu Lantzeko inauteriekin?

Urte askoan izan dut Lantzerako joateko asmoa, baina ezin izan naiz joan iaz arte. Nire pertsonaiekin hangoen antz handia zutela ikusi nuen. Inkontziente kolektibo bat dagoela pentsatu nuen orduan, gure imaginario osoan dagoena presente, eta hortik dator hartu-eman. Uste nuen argi nuela zeintzuk ziren nire pertsonaiekin formak, baina ez. Eta aurrez aurre topatzera koan, zer pentsatu eman zidan, iruditeria orokor horretan. Eskulturetan hori islatzea gustatu zitzaidan.

Akrilikoekin egin dituzu margoak.

Gramaje handiko paperak erabiltzen ditut, eta trazoan nire jestua asko ikusten da eta hori gustatzen zait; oso argi ikusten da margotzerakoan egiten dudana, baina bai, akrilikoa da. Margotzeko modu gordina da. Iruditik hasten naiz lanean, irudi hori koloreetan deskonposatzen dut, deserakitze ariketa bat dago. Trazo bizkorra egiten dut, eta hortik dator pintatzeko modu hori.

Bideotik hasten zara. Ez da ohikoa.

Egundoko buelta ematen diot neure prozesuari. Leku batetik hasi, eta pinturara heltzen naiz azkenean. Baina helburua ez da bakarrik pinturara heltzea, prozesu luze hori ibiltzea baino, bertan gauza asko gertatzen delako. Erakusketa honetan badago margoren bat bideo bateko fotogramaren batetik abiatu dudana, eta lehenengo eskulturak ikus-entzunezko formatu batetik pentsatuak ziren. Adibidez, kroma

Jenni Alvarado.



'Muna'.

Ganso & CIA konpainiaren 'Muna' antzezlanaren taularatuko dute Elorrion

Bereziki 2tik 6 urtera arteko umeei zuzenduriko obra da; Arriolan taularatuko dute, otsailaren 18an, 17:00etan

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Muna lurpean bizi da, basoko animalia baten moduan, libre, naufrago bat bere irlan legez. Goizero parkean ibiltzen da, ahazturiko altxorren bila. Egunero istorio bera, harik eta egun batean iretargiraino igotzeko

modua bilatzea erabakitzen duen arte. Horrela hasten da Ganso & Cia konpainiaren *Muna* antzezlanaren. Oparia baztertu eta kutxagaz jolasten direnentzat txango bisual eta soinuduna dela azaldu dute ikuskizunaren sortzaileek: "Erlojurik, ezinezko-

rik eta araurik bako leku batera bidaia. Zuzeneko musika, lata desafinatuekin eta jostailuzko gitarragaz. Kolorea eta berota-

Oparia baztertu eta kutxagaz jolasten direnentzat txango bisual eta soinuduna da

sun, erdi bana". *Muna* antzezlanaren beste ezaugarrietariko bat berbarik erabiltzen ez duela da. Ganso & Ciaren ikuskizuna Arriola antzokian taularatuko dute, otsailaren 18an, 17:00etan.



'Loti Ederra'

Loti Ederraren estereotipoak hankaz gora ipintzen dituen lana

Glu Glu taldearen antzezlanak buelta eman die ipuin ezagunaren alde sexista eta tradizionalari

DURANGO • JONE GUENETXEA

Glu Glu antzerki taldeak *Loti ederra* ipuin klasikoaren antzerkirako egokitzapena egin du. Ikuskizun honek Durangoko San Agustin Kultur Gunea bisitatuko du domekan, 18:00etan. Oraingoan, ipuin ezagun hau eszenatokira eramateko, bere alderdi sexista eta tradizionalistak ezabatu gura izan dituzte. Galder Perezek idatzi du gidodia eta Ugaitz Alegria da zuzendaria. Ipuin klasikoa gaur egun eztabaida handia sortzen duen gai bat lantzeko baliatu dute: haur zein nerabeen sare sozialen mendekotasuna. Era berean,

antzezlanaren arduradunen esanetan, gizartean inposaturiko edertasun-estereotipoak

Antzezlanaren arduradunen esanetan, gizartean inposaturiko edertasun-estereotipoak haustea dute helburu

haustea dute helburu. "Horretara jokatu gura izan dugu, ipuinari buelta eman eta kontatu zigutena buruz behera ipinita", gaineratu dute

Gai librean

Hazkura

Azala da gizakiok daukagun organorik handiena, zabalena eta pisutsuena. Esanahi zeintifikoari helduta, epidermisa da bizirauteko ezinbestekoak diren funtzioak betetzen dituen: organismoa kanpo-faktoreetatik babesten du, besteak beste, bakterietatik, substantzia kimikoetatik eta tenperaturatik.

Ipuir-masailak eta alua orbainez beteta dauzka lagunak, eta hilabeteak daramatza azaleko gaitzari izena jarri nahian, azala gori-gorian daukalarik. Bularraldean ezohiko erliebea jaio zaio beste lagun bati, eta erremina agoantatzeko formularik aurkitu ezinean dabil. Odolbilduek eraginda, beltzez, morez eta horiz tindatuta edukiko du aurpegialdea Billabonako 16 urteko gazteak zipaioen balaren erruz. Nola sendatzen da eraso polizial bat?



Miren Erdoiza Mugika
Irakaslea

Kortisona eta antihistaminikoak agintzen dizkigute profesionalek. Zerk sendatzen ditu azalekoak ez diren minak?

Azala erotu zaigu, eta orfidalak eta kokainak ez dute laguntzen. Kanpoan hotz egiten du, eta estalkirik gabe harrapatu gaitu neguak

Kanpokoaz babesteko gudu-zelaia da narrua, eta etengabe egiten diote eraso. Arnasarik hartzen uzten ez digun bakeroak, ordaindu ezin ditugun ikasketek, agur esateko kapaz ez garen harremanak. Barrua garrasika ari denean zauritzen da azala. Kortisona eta antihistaminikoak agintzen dizkigute

profesionalek. Zerk sendatzen ditu azalekoak ez diren minak?

Azala erotu zaigu, eta orfidalak eta kokainak ez dute laguntzen. Kanpoan hotz egiten du, eta estalkirik gabe harrapatu gaitu neguak. Azal finekoak garela errepikatzen jarraituko dute behin eta berriz. Eta guk lodierak ez duela hauskortasuna determinatzen erantzungo dugu. Errezetarik behar ez duten formulak kontsumituko ditugu, merkatu beltzean eskuratzen ez direnak: iratzargailurik gabeko igandeak; hiru minutu eta berrogei segundoko podcastak; dardaraz jositako orgasmoak; goizaldeko kebab-ak; eta begiak puztu eta barrua husten duten negarraldiak.

Azala ez ezik, mundua ere iparra galtzen ari da aspaldian, eta guk, azal fineko giza-alabok, ahal duguna egiten jarraituko dugu, behar dugun aldiro negar, barre, oihera eta hazka eginez.

Hirugarren denbora, errugbiko partidurik garrantzitsuen

Errugbiko tradizio ezaguna bizirik mantentzen dute oraindino. Joan zen zapatuan DRTko eta Elorrioko kirolariak partidu osteko denboraz gozatu zuten



Hirugarren denbora Arripausuetan; DRTko eta Elorrioko errugbilariak.

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Zapatu arratsaldea da eta berbaroa entzuten da Arripausuetako aldagelen atzeko aldean. Durango Rugby Taldeko eta Betsaide Elorrioko jokalariek lagun artean solasean dabilta, bromatik

bromara mokadu bat jaten duten bitartean. Derbi estua jokatu berri dute —22-29, elorriarren alde—, eta zelaian mele, borroka eta tentsio guraina izan duten arren, orain ez da horren arrastorik geratzen. Hirugarren den-

boraren magia da. "Errugbian jokoan bezain garrantzitsua da hirugarren denbora", dio Gorka Rodriguezek, DRTko kapitainak.

Errugbian tradizioa da partidu bakoitzaren amaieran talde bietako jokalariek jan-edana-

ren bueltan batzea. Kirol honek sustatu gura diren balioen erakusle nagusia da. "Esaten da errugbian partiduak ez direla zelai barruan amaitzen, talde baten garaipenagaz edo porrotagaz; hirugarren denbora bat

ere badagoela esaten da, lagun artean denok elkarregaz batzen garena, liskarrak alde batera utzita", dio Martxelo Eriz Betsaide Elorriko taldeko kapitainak. Gainera, anaitasuna ez da jokalarietara bakarrik mugatzen. Joan zen asteburuko hirugarren denboran bazegoen pertsona bat ez zena ez talde batekoa eta ez bestekoa: epailea. Derbiko epailea jokalariekin solasean aritu zen, beste taldekide bat gehiago balitz legez.

Partiduko gorabeherak ez ezik, beste kontu batzuk ere izaten dituzte berbagai. "Durango-koen eta Elorriokoekin elkartzuna aspaldikoa da. Gutariko asko elkarregaz ikasitako lagunak gara, eta denbora batean elkar ikusi barik egon eta gero, batak bestearen bizimodua zelan doan jakiteko balio du", diote kapitain biek.

Onena, Sarakoa

DRT eta Betsaide Elorriko Euskal Ligan dabilta eta denboraldian zehar Euskal Herriko makina bat herri bisitatzen dute. Kapitain biek diote hirugarren denbora guztiak direla onak, bakoitza bere ezaugarriekin, baina bat aukeratzeko eskatuta, Lapurdiko Sarako Izarra taldearena nabarmendu dute. "Abesteko ohitura dute eta oso giro ona sortzen da",

Munduko txapelketan hiru domina irabazita, Abadiño sokatiralariek etorkizun oparoa dutela erakutsi dute

Munduko talderik onenak batu dituen txapelketan, onenak izan dira modalitate mistoan, emakumeetan eta gizonetan



Dominak irabazi dituzten Abadiño eta Berriozarko 23 urtez azpiko gazteak.

SOKATIRA • J.D.

Abadiño Sokatira Taldea etorkizunari baikor begiratzeko moduan dago. Urteak eman dituzte sasoi bateko talde mitikoari erreleboa hartuko zioten gazteak zailtzen, eta lana bere fruituak ematen dabil. Promesak barik, dagoeneko errealitate sendoa direla esan daiteke. Joan zen asteburuan, goma gaineko Munduko Sokatira Txapelketa lehiatu zuten Suediako Helsingborg herrian, eta 23 urtez azpiko taldeak hiru domina eskuratu zituen, euretariko bi urrezkoak.

Zilarrezko domina heldu zen lehenengo, talde mistoan. Txina Taipei baino ez zen izan Abadiño baino gehiago. Hurrengo eguneko festa erabatekoa izan zen, urrezko domina bi lortuta.

Abadiño sokatiralariek Berriozarkoekin osatu zuten taldea, emakumeetan nahiz gizonetan. Emakumeek Irlandako talde bat menderatu zuten finalean, eta gizonak Ipar Euskal Herriko Zuraidetako taldea.

Etxera bueltan, ondo merezitako omenaldiak jaso zituzten. Lehenengo, herritarren partetik, Loiuko aireportuan, hegazkinetik jaitsitakoan. *Banango zaharra* dantzatzuz egin zieten ongietorria txapelketari. Atzo iluntzean, harrera egin zieten Abadiño sokatiralariei.

Dominak pilatzen

Oraingoa ez da Abadiño sokatiralariek munduko txapelketa batean nabarmen diren lehenengo aldia. Iazko martxoan, Belfasten (Ipar Irlanda), urrezko hiru domina irabazi zituzten goma gaineko. Ondoren, irailean, lur gaineko munduko txapelketan, brontzezko eta zilarrezko domina bana irabazi zuten Abadiño sokatiralariek Goierrikoekin taldea osatuta.

Mañaritik Atxetara mendi lasterketa berria Untzillatxetik igaroko da, irailaren 21ean, eta Euskal Herriko probarik gogorrenetariko bat izango da

Maratoiko distantzian, 3.800 metroko desnibel positiboa izango du eta Leungane, Artatzagane, Astxiki, Urkiolamendi eta Untzillatx tontorretatik igaroko da



Untzillatx mendia, Mañaritik Atxera mendi lasterketako tontorrik esanguratsuenak. KEPA BORDES

MENDI LASTERKETA • J.D.

Mañariak eta Untzillatxek mendi lasterketa propioa izango dute irailaren 21ean. Egun horretan izango da Mañaritik Atxetara lasterketa berria, hainbat lagunaren ekimenari eskerrak. Lasterketa bi izango dira: 42 eta 22 kilometroko bana. Biak

Mañarian hasi eta amaituko dira. Luzean, korrikalariak Leungane eta Artatzagane tontorretatik ibiliko dira lehenengo, Mañarira itzuli aurretik. Ondoren, Urkiolarantz joko dute eta Gatzarieta baserritik Atxartera jaitsiko dira. Segidan, Astxiki igo eta bajatuko dute; igo,

hego-mendebaldeko bide batetik, eta jaitsi, ohiko bidetik, Olarreta aldera. Handik Arrazolara, Arrazolatik Zabalandira, Zabalanditik Asuntzara, eta handik Urkiolamendi igoko dute. Eta hori gutxi balitz, errematea falta da: azken txanpan Untzillatx igo eta jaitsiko dute ko-

rrikalariak. Lasterketa laburragoan ez dute Leungane eta Artatzagane-ko itzulia egingo eta ez dute Anboto inguratuko: Larranotik zuzenean joango dira Asuntzara. Begi bista-koa da lasterketa gogorrek direna. Luzeak 3.800 metroko desnibel positiboa du, eta laburrak 2.000koa.

"Luzea, kilometro kopuruaren eta desnibelaren arteko portzentajeari dagokionez, Euskal Herriko lasterketarik gogorrena eta estatuko gogorrenetarikoa da", dio ekimeneko antolatzaileetakoa den Mikel Larrañagak.

Izen ematea martxoaren 1ean hasiko dute, *kronoak.com* webgunean. Lasterketaren gaineko informazioa *mañaritikatxetara.com* webgunean jaso daiteke.

Mendi martxa


Irailaren 21ean mendi martxa bat ere egingo dute, ekimena ahalik eta jenderik gehienarengana zabaltzeko. 09:30ean hasiko da. 11 kilometro ditu, 900 metroko desnibel positiboagaz. Artatzagane eta Leunganeko itzulia egingo dute. "Umeekin eta familia giroan egiteko martxa aproposa da. Gogortxo da, baina ez du aparteko zailtasunik, pista zabalak eta erosoak daude", dio Larrañagak. Horrez gainera, egun osoko jai bat izatea gura dute, musikagaz eta bestelako ekintzekin.

Mendizaleak diren sei bat durangarren ekimenari eskerrak sortu dute lasterketa. Urte dezente daramatzate mendi lasterketan parte hartzen eta elkarregaz entrenatzen. Mañariko Kagrafa elkartearen bitartez bideratu dute ekimena.

Jokaldia

Menchik, lehen emakume txapelduna

Laster emakumearen nazioarteko eguna ospatuko dugu; beraz, xakearen munduko ikono femeninoetako bat omenduko dugu, emakumezko lehen munduko xake txapelduna izan zena 1927an. Vera Menchik zeukan izena. Moskun jaio zen, 1906ko otsailaren 16an, eta 9 urte zituela aitarekin ikasi zuen xakean jokatzeko, oraindik Errusian bizi zirenean. 1921aren amaieran Ingalaterrara bizitzera joan zen, amarekin eta ahizparekin; eta bertan, xakean seriozki jokatzeko hasi zen. "Joko isila eta denbora-pasa bikaina da hizkuntza ondo hitz egiten ez duen pertsona batentzat", aitortu zuen Verak. 21 urte zituela (1927an), sortu berri zen Emakumezkoen Mun-



Gabriel Barranco Devesa
Larrasoloetako xakelaria

Esan daiteke Vera Menchik bidea ireki zuela, gizonekin lehiatzen lehen emakumea izan zen eta

duko Xake Txapelketa erraz irabazi zuen. Hortik aurrera, emakumezkoen beste txapelketetan parte ez hartzea erabaki zuen, eta emakumezkoen munduko txapelketan baino ez zen lehiatu. Titulu horri 17 urtez eutsi zion, 2. Mundu Gerraren testuinguruan Londresen jasotako bonbardaketa batean zendu zen arte (gaur egun, historian tituluari denborarik gehien eutsi dion txapelduna da); maila goreneko txapelketetan parte hartuko

zuen soilik, ordura arte gizonen txapelketa batean izena eman zuen, Capablanca, Nimzovich eta Rubinstein bezalako jokalariekin. Albert Beckerreri (parte hartzaileetako bat) Vera Menchik Kluba sortzea bururatu zitzaion. Menchik aurka galtzen zuten gizonen osatutako kluba zen, gure protagonista gutxietsiz; eta txapelketa berean, Becker klubeko lehen bazkide izendatua izan zen.

1929an maila ikaragarriko txapelketa batean izena eman zuen, Capablanca, Nimzovich eta Rubinstein bezalako jokalariekin. Albert Beckerreri (parte hartzaileetako bat) Vera Menchik Kluba sortzea bururatu zitzaion. Menchik aurka galtzen zuten gizonen osatutako kluba zen, gure protagonista gutxietsiz; eta txapelketa berean, Becker klubeko lehen bazkide izendatua izan zen.

Artikulu hau modu ezin hobean agurtzeko, bere hitz batzuk lagako dizkizuet: "Guk, emakumeok, xakean ez dugu iraganik. Baina oraina eta etorkizuna ditugu".



**BADATUZ
UDABERRIKO
ESKAINTZAK!!!**

Hartu hitzordua

SCHMIDT
ABADIÑO

Urbite Polígono Industrial, S/N,
Local 17B, 48220 Abadiño, Bizkaia
946 52 61 95

www.home-design.schmidt

JARRAITU IEZAGUZU SARE SOZIALETAN

INTA UTE RIAK



Botikak

BARIKUA, 16 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 17 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 18 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 19 · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 20 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 21 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 22 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Kattalin (967. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Zorionak, **Ekaitz!** 15 urte jada! Muxu haundi bat familia guztiaren partez!



Ari, gaur barikua, 7 urte egin dituzu. Zorionak guztion partez. Asko maite zaitugu!



Gaur, otsailaren 16an, gure **Maidere**rek 8 urte egiten ditu. Zorionak familia guztiaren partez! Segi hain polita izaten, barrutik zein kanpotik. Maite zaitugu.

Eguraldia

ZAPATUA 5° / 17° ☁

ASTELEHENA 10° / 15° ☁

EGUAZTENA 7° / 17° ☁

DOMEKA 7° / 17° ☁

MARTITZENA 7° / 14° ☁

EGUENA 7° / 14° ☁

bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA

946 523 935 bertako.eus



"Zaletasunak aldatu egin dira eta elkarteak talde heterogeneo bilakatu da"

Dani Alvarez Elorrioko Filatelia eta Numismatika elkarteko presidentea da; 20 bazkide dira eta hiru hilero erakusketak antolatzen dituzte, kide ez diren bildumazaleei zabalik daudenak



Dani Alvarez Gabaldon
Bildumazalea
ELORRIO | 1976

ELORRIO • AITZIBER BASAURI
Bildumazaletasunak baditu jarraitzaileak Durangaldean. Horietariko bat Dani Alvarez da. Etxean topaturiko gutunetako zigiluak ebakiz hasi zen lehenengo bilduma egiten, 11 urteagaz. Gaur egun, itsasontzien gaiagaz loturiko txanpon eta diru-paperekin, poltsikoko egutegiaren eta postalaren bildumak egiten ditu. Elorrioko Filatelia eta Numismatika elkarteko kide da 1988tik.

Zigilu eta txanponen bildumazaletasunagaz lotuta sortu zen elkarteak. Hala ere, orain, askotariko bildumazaleak elkartzeko zarete.

Urteak aurrera, geroago eta gutun eta zigilu gutxiago erabiltzen da, eta lehen ez zeuden bestelako objektuen bildumazaletasuna sortu da: insigniak, postalak, poltsikoko egutegiak, zeramikazko hontzak, giltzatak eta orri-markagailuak, argazki kamerak, metxeroak, boligrafoak, titareak... Askotariko bildumak egiten dira. Gustu eta zaletasunak aldatu egin dira eta elkarteak talde heterogeneo bilakatu da, zigiluen bildumazaletasunari lotuta egon arren gehienbat. **Kultur etxean elkartzeko zarete.** Bai, lokala izatea oso lagungarria da gure jardunerako. Hilean behin

Lokal bat izatea oso lagungarria da gure jardunerako. Hilean behin edo birritan elkartzeko gara

edo birritan elkartzeko gara. Gure bildumak partekatzen ditugu eta horiek osatzen laguntzen diogu elkarri. Hala ere, badaude elkarteko kide ez direnak, bildumak etxetik, Internet bidez, osatzen dituztenak. Ez dute merkatu edo dendetara joateko beharizanik, trukatzeko

beharizanik. Niretzat horixe da politena, hartu-emanen egotea, zerbait lortzeko nora jo jakitea. Hala ere, elkarteak liburutegian antolatutako erakusketak zabalak dira, bildumazale guztiei euren bilduma erakusteko aukera emateko.

Askotariko bildumak egiten dituzu. Baduzu baten bat bereziki gogoko?

Ez daukat pieza bat bereziki kutuna. Denerik biltzen dut: Elorrioko egutegiak, banku eta aurrezki kutxen poltsikoko egutegiak, itsasontzien gaiagaz loturiko txanponak eta diru-paperekin, eta Euskal Herriko eta zubien postalak. Domeketako azoka txikitara jotzen dut:

Elkarteak antolatzen dituen erakusketak zabalak dira, bildumazale guztiei euren bilduma erakusteko aukera emateko

Bilbokora, Gasteizkora... Ahetzekoa (Lapurdi) ere izugarria da. Bildumagileen artean oso ezaguna da, zelanbaiteko erreferentzia. Denerik egoten da han. Filatelia eta numismatika denda espezializatueta ere joaten naiz. Horiek ere geroago eta gutxiago dira, gurea lako elkarteak legez. Eskualdean, gurea da bakarra.

Oraindino badago bildumazaletasunik?

Belaunaldi berriak falta dira. Gazteek beste era bateko aukerak dituzte aisialdia betetzeko. Zaletasun minoritarioa da.

Iaz Berrio-Otxoa abesbatzaren 50. urteurreneko zigilua atera zenuten. Aurten besteren bat aterako duzue?

Elorrioko Futbol Kirol Klubaren mendeurrena da, eta zigilua eta zigilu-marka atera gura ditugu. Eta, kirola gai hartuta, erakusketak bat antolatu gura dugu. Herriagaz loturiko efemerideak baliatuta, zelanbaiteko omenaldiak egitea dugu helburu. Aurretik ere sortu ditugu zigilu-markak: Berriozabaletako iturriagaz, Balendin Berrio-Otxoagaz, Kurutzia gurutzegaz, Musko Arriolagaz, Errebonbiloekin, Elorrioren 650. urteurrenagaz...

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea/ Jubilatua



Irisgarritasuna

Gero eta gehiago gara istripu, gaixotasun edo adinagatik mugikortasun arazoak ditugunak, eta gure eguneroko bizitza samurtzeko neurriak hartu beharko lituzkete udalek, zerbitzu publikoek eta komertzioek, baina zoritxarrez, askotan, salduta sentitzen gara. Gu ere herritarrek gara gure betebeharrak eta eskubideekin, baina sarritan ez gaituzte kontuan hartzen. Adibide gisa nire herria, Elorrio, hartuko dut.

Ni skooter elektriko batekin mugitzen naiz eta udaletxera sartu nahi badut norbaitek sarrerako atea zabaldu behar dit sartu ahal izateko. Pleno Aretora igotetik pentsatu ere ez. Arazo hau konpontzeko ate automatikoa jartzea baino ez da eta Pleno Aretora igoteko plataforma bat. Gauza berbera gertatzen zaizkigu Kultur Etxean eta Turismo Bulegoan sartzeko, atea ez daude egokituta.

Herrian lau banketxe ditugu eta bakarrik Laboral Kutxan sartu naiteke arazorik gabe. Beste hiruretan edo atea oztopo edo igo ezinezko maila daude. Traba horiek konpontzeko eskatu arren jaramonik ez.

Denda eta taberna gutxi batzuek dute sarrera egokituta, baina gehienek oztopoekin jarraitzen dute eta zergaitia galdetzen diedanean errua udalari edo auzokideei leporatzen diete.

Udala ez bada gai arazo hauek identifikatzeko eta konpontzeko, prest gaude udaleko teknikari eta EMEko (Elorrioko Merkataritza Elkarteak) kideekin batera kalerik kale joateko iragarritasun arazoak identifikatu eta ahal den neurrian eta ahal bezain pronto oztopo horiek guztiak atzean uzteko.


Ea laster denok lanean hasten garen, guk ere herrian bizi, erosi eta disfrutatu nahi dugulako.



SAN ROKE BARRIA

ETXEBIZITZA AUKERA ZABALA
3 LOGELA
295.000€ -TIK +BEZ

ERAIKUNTZA LANAK HASITA



Salmenta bulegoa
Astxiki kalea 1, Durango

946 462 041
www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa